

2022ko abenduaren 19an, Erakundearen Administrazio Kontseiluak Zuzendaritza Gerentzia honi ahalmena ematea erabaki zuen, Egonkortzeko ezohiko eta salbuespenezko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako zuzkidurak eta 2022ko Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako bi zuzkidurak betetzeko hautaketa-prozesuetako deialdiak (oinarriak barne) onartu eta argitaratzeari buruzko ebazpena eman zezan.

Ahalmenak eman ahal izateko, Zuzendaritza eta Gerentzia honek ebazpena eman aurretik negoziazio kolektiboa egin behar zen langileen ordezkariekin.

Izapide hori egin da, eta, horren ondorioz, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan aipatzen diren hautaketa-prozesuak arautuko dituzten deialdien testuak eta oinarriak ezarri dira.

Aurrekoa ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2022ko abenduaren 19an egindako bileran emandako ahalmenez baliatuz, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

1. Egonkortzeko aparteko eta salbuespenezko Enplegu Publikoaren Eskaintzan jasotako zuzkidurak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdiak onartzea, bai eta Donostiako Etxegintzaren 2022ko ohiko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako bi zuzkidurenak ere.

Con fecha 19 de diciembre de 2022 el Consejo de Administración de la Entidad acordó facultar a esta Dirección-Gerencia a dictar resolución relativa a la aprobación y publicación de las convocatorias de los procesos selectivos (incluidas sus bases) para la cobertura de las dotaciones incluidas en la Oferta de Empleo Público extraordinaria y excepcional de estabilización, así como de las dos dotaciones incluidas en la Oferta de Empleo Público de la Entidad del año 2022.

El otorgamiento de facultades quedó condicionado a que la resolución que dictara esta Dirección-Gerencia fuera precedida por la correspondiente negociación colectiva con la representación del personal.

Dicho trámite ha sido llevado a cabo y, como resultado, se han establecido los textos de las convocatorias y las bases que han de regir en los procesos de selección a los que se refieren las Disposiciones Adicionales Sexta y Octava de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

A la vista de lo que antecede, esta Dirección-Gerencia, en uso de las facultades otorgadas por el Consejo de Administración de la Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza, en reunión celebrada el 19 de diciembre de 2022, viene en adoptar la siguiente

RESOLUCIÓN

1º Aprobar las convocatorias de los procesos selectivos para la cobertura de las dotaciones incluidas en la Oferta de Empleo Público extraordinaria y excepcional de estabilización, así como de las dos dotaciones incluidas en la Oferta de Empleo Público ordinaria de Donostiako Etxegintza del año 2022.

Hona hemen deitutako plazen El detalle de las plazas convocadas es el
xehetasunak: siguiente:

PLANTILLAN LANPOSTU ZBKA/ N.º PLAZA DE PLANTILLA	LANPOSTUAREN IZENA/DENOMINACION PUESTO	LANPOSTUAREN MOTUA KODEA/ CODIGO O TIPO DE PUESTO	TALDEA- AZPIT ALDEA /GRUPO- SUBGRUPO	BIRJAPEN TASA/TASA DE REPOSICION	TXANDA/TURNO	SISTEMA/ SISTEMA
5	ADMINISTRATIBOA /ADMINISTRATIVO/ A	14	C-C1	20/2021 XG 6 Legearen egonkortze- tasa/Tasa estabilización Ley 20/2021 DA6	LIBREA/LIBRE	LEHIAKETA/ CURSO
6	ADMINISTRATIBOA /ADMINISTRATIVO/ A	14	C-C1	20/2021 XG 6 Legearen egonkortze-tasa / Tasa estabilización Ley 20/2021 DA6	LIBREA/LIBRE	LEHIAKETA/ CURSO
8	ETXEBIZITZEN ETA ERRENTAMENDUEN IKUSKATZAILEA/ INSPECTOR/A DE VIVIENDAS Y ARRENDAMIENTOS	10	C-C1	20/2021 XG 8 Legearen egonkortze-tasa Tasa estabilización Ley 20/2021 DA8	LIBREA/LIBRE	LEHIAKETA/ CURSO
9	KUDEAKETA TEKNIKOA/TECNICO O/A DE GESTION	9	A-A2	2022ko EAOL/ LPGE 2022	BARRUKO PROMOZIOA/ PROMOCION INTERNA	LEHIAKETA- OPOSIZIOA/ CONCURSO- OPOSICION
10	KUDEAKETA TEKNIKOA/TECNICO O/A DE GESTION	9	A-A2	2022ko EAOL/LPGE 2022	BARRUKO PROMOZIOA/ PROMOCION INTERNA	LEHIAKETA- OPOSIZIOA/ CONCURSO- OPOSICION
14	ADMINISTRATIBOA /ADMINISTRATIVO/ A	14	C-C1	20/2021 Legearen egonkortze-tasa, 2.1 art. / Tasa estabilización Ley 20/2021 art 2.1	LIBREA/LIBRE	LEHIAKETA- OPOSIZIOA/ CONCURSO- OPOSICION
15	SAIL TEKNIKOAREN ARDURADUNA/ RESPONSABLE DEPARTAMENTO	4	A-A1	20/2021 XG 6 Legearen egonkortze-tasa Tasa estabilización Ley 20/2021 DA6	LIBREA/LIBRE	LEHIAKETA/ CURSO

	TECNICO					
16	ERAIKUNTZAKO TEKNIKARIA/TECNI CO/A DE EDIFICACION	8	A-A2	20/2021 Legearen egonkortze-tasa, 2.1 art. / Tasa estabilización Ley 20/2021 art 2.1	LIBREA/LIBR E	LEHIAKE TA- OPOSIZIO A/CONCU RSO- OPOSICIO N
17	ERAIKUNTZAKO TEKNIKARIA/TECNI CO/A DE EDIFICACION	8	A-A2	20/2021 XG 8 Legearen egonkortze- tasa/Tasa estabilización Ley 20/2021 DA8	LIBREA/LIBR E	LEHIAKE RTA/CON CURSO
18	ADMINISTRATIBOA /ADMINISTRATIVO/ A	14	C-C1	20/2021 XG 8 Legearen egonkortze-tasa /Tasa estabilización Ley 20/2021 DA8	LIBREA/LIBR E	LEHIAKE RTA/CON CURSO
23	ADMINISTRATIBOA /ADMINISTRATIVO/ A	14	C-C1	20/2021 XG 8 Legearen egonkortze- tasa/Tasa estabilización Ley 20/2021 DA6	LIBREA/LIBR E	LEHIAKE RTA/CON CURSO
24	ADMINISTRATIBOA /ADMINISTRATIVO/ A	14	C-C1	20/2021 XG 8 Legearen egonkortze- tasa/Tasa estabilización Ley 20/2021 DA8	LIBREA/LIBR E	LEHIAKE RTA/CON CURSO
25	ADMINISTRATIBOA /ADMINISTRATIVO/ A	14	C-C1	20/2021 Legearen egonkortze-tasa, 2.1 art. / Tasa estabilización Ley 20/2021 art 2.1	LIBREA/LIBR E	CONCUR SO- OPOSICIO N

3.- Aurreko puntuan aipatutako hautaketa-prozesu guztiak arautuko dituzten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea. Oinarri horiek ebazpen honekin batera doaz.

4.- Administrazio Kontseiluari ebazpen honen berri ematea hurrengo bileran.

3º Aprobar las bases genéricas y específicas que regirán en todos los procesos de selección mencionados en el punto anterior, bases que se acompañan a la presente Resolución

4º Dar cuenta de la presente Resolución al Consejo de Administración en la próxima reunión que celebre.

Donostia/San Sebastián, 2022ko abenduaren 22an/22 de diciembre de 2022

DONOSTIAKO ETXEGINTZAREN ZUZENDARI-GERENTEA

Rafael Bernardo Farias Blanc

**DONOSTIAKO ETXEGINTZA ERAKUNDE PUBLIKOAN ENPLEGUA
EGONKORTZEKO HAUTAKETA-PROZESU BEREZIEN ETA ENPLEGUA
EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO HAUTAKETA-PROZESUEN
DEIALDIA ETA OINARRIAK.**

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da Donostiako Etxegintza Erakunde Publikorako zenbait lanpostu kontratatzea, babes ofizialeko etxebizitzak, gazteentzako eta adinekoentzako apartamentuak, hutsik dauden etxebizitza pribatuak alokairua eta Donostiako eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak sustatu, esleitu eta kudeatzeko.

Deialdi honen xede diren lanpostuak enplegua egonkortzeko prozesu berezien eta enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen esparruan sartuta daude, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera.

Deitutako hautaketa-prozesuak, prozesu mota, modalitatea, plaza kopurua eta bakoitzaren oinarri espezifikoak zehazten dituen eranskina honako hauek dira:

Lanpostua	Prozesu mota	Sistema	Sartzeko modalitatea	Plazak guztira	Oinarri espezifikoaren eranskina
Sail teknikoko arduraduna	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 1
Eraikuntzako teknikaria	Egonkortzeko berezia	Oposizio-lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 2
Eraikuntzako teknikaria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 3
Etxebizitzaren eta errentamenduen ikuskatzailea	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 4
Administraria	Egonkortzeko berezia	Oposizio-lehiaketa	Orokorra	2	Eranskina 5
Administraria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	5	Eranskina 6

Deialdia publikoa eta irekia da, eta langileak hautatzeko enpresa batek kudeatuko ditu deitutako hautaketa-prozesuak, dokumentu honetan jasotako baldintzak eta berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak betez, eta deialdiaren arau orokorrak eta dokumentu honetan jasotako hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak betez.

Deitutako hautaketa-prozesuetatik eratorritako kontratazioak lan-kontratu

mugagabearen bidez egingo dira.

Hautaketa-prozesu horiek ez dute lan-poltsarik sortuko.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izango dute baldintza baztertzaila hauek betetzen dituztenek, kasu bakoitzerako ezarritako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta baldintza horiek betetzen jarraitu beharko dute kontratua sinatu arte:

- a) Legezko bizilekua Espainian izatea eta lan-baimena.
- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Deitutako lanpostuetako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- d) Eskatutako titulazioa izatea, edo agiriok jaso ahal izateko eskubideak ordainduta egotea, lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikoetan adierazitako berariazko betekizunen arabera. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.
- e) Deitutako lanpostu bakoitzerako eskatzen den beste edozein betekizun espezifiko, oinarri espezifikoaren arabera.
- f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean ez erortzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, honako hauek egin beharko dira:

- 1.- Horretarako prestatuko den eskabide-orria betetzea.
- 2.- Ezarritako epean aurkeztea.

Era berean, horiek aurkezteko epea amaitzen denean, eskatutako betekizun guztiak bete beharko dira, bigarren oinarrian ezarritakoaren arabera. Parte hartu nahi dutenek eskabide bat aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten hautaketa-prozesu bakoitzeko.

Hautaketa-prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epearen irekiera zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpenean argitaratuko da (www.donostia.eus/vivienda). Nolanahi ere, hautaketa-prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epea 2023ko abenduaren 31 baino lehen irekiko da.

Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskabideak hamar egun balioduneko epean aurkeztuko dira, irekiera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hautaketa-prozesu bakoitzerako epea irekitzen denean zehaztuko den prozeduraren arabera aurkeztuko dira eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da alegatzen diren baldintzak eta merezimenduak betetzeko erreferentziatzko data.

LAUGARRENA. ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDAA.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, berrikusi egingo dira, lanpostu bakoitzerako eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta onartutako en eta baztertutako en behin-behineko zerrendak argitaratuko dira zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpen-bidean.

Zerrenda horietan, baztertze arazoia adieraziko da, hala badagokio, eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko, zerrenda horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta horiek ebatzita, bitarteko bera erabiliz argitaratuko dira onartutako en eta baztertutako en behin betiko zerrendak.

BOSGARRENA. HAUTAKETA-PROZESUAK.

Oinarri orokor hauetan jasotako irizpide eta ezaugarri orokorren eta deitutako lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikoetan jasotako irizpide eta ezaugarri espezifiko en arabera garatuko dira hautaketa-prozesuak, harik eta lanpostu bakoitzerako izangaien azken kalifikazio en behin betiko zerrendak argitaratu arte.

5.1. Horretarako, hautaketa-batzorde bat eratuko da hautaketa-prozesu bakoitzerako, gizon en eta emakume en ordezkariak orekatuarekin, eta inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak errespetatuko dira kideak izendatzean.

Hautaketa-batzordeak hautaketa-prozesu en gardentasuna eta objektibotasuna zainduko ditu, baita proben konfidentzialtasuna eta deialdi en oinarriak zorrotz betetzea ere. Era berean, hautaketa-prozesu en sortzen diren zalantzak ebazteko ahalmena izango du, bai eta prozesuak behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartze en ere, oinarri hauetan xedatutako en arabera, oinarri en aurreikusi gabeko kasu en hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hautaketa-batzordeak aholkulari edo enpresa espezializatuak jarri ahal izango ditu bere lanetan, egokitze jotzen dituen kudeaketak eta probak egiteko, hala nola eskaerak jasotzeko, probak diseinatzeko, gauzatzeko eta baloratzeko.

Hautaketa-batzordeko kide en bat ezin bada bertaratu, Zuzendaritzak hura ordezkari du en pertsona izendatuko du.

5.2. Interesdun en erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte zortzigarren oinarri adierazitako jakinarazpen en egindako argitalpen en ondoren, hiru egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, horretarako ezartzen den prozeduri jarraituz.

5.3. Prozesu motaren araberako hautaketa-sistema honako hau izango da:

- Egonkortze-prozesu bereziak: Lehiaketa-Oposizioko hautaketa-sistema.
- Egonkortzeko salbuespenezko prozesuak: Lehiaketako hautaketa-sistema.

5.4. Oposizio- edo Lehiaketa-faseen ezaugarri orokorrak

OPOSIZIO FASE:

Oposizio-fasea nahitaezkoa eta ez-baztertzailea izango da, eta, hala badagokio, lanbide-gaitasuna baloratuko da. Horretarako, proba batzuk egingo dira. Galdera-sortak izango dira, eta erantzuteko hainbat aukera izango dira, eta/edo deialdiko lanpostuen eginkizunekin eta jarduera-eremuarekin lotutako kasu teoriko-praktikoak ebatziko dira.

Hautagaiei probak prestatzen laguntzeko, lanpostu bakoitzaren oinarri espezifikoeetan horri buruzko informazioa jasotzen da.

LEHIAKETA-FASEA:

Lehiaketa-fasean, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira. Nolanahi ere, aurkezten diren merezimenduen erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da; horretarako, behar bezala egiaztatu beharko dira horretarako ezartzen den epean eta ezartzen den alegazio- eta egiaztapen-prozedurari jarraituz.

Baloratu daitezkeen merezimenduak eta baremoa hautaketa-prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoeetan zehazten dira, eta horietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituta egingo da balorazioa, kasu bakoitzerako ezarritako baremoaren arabera. Lehiaketa ez da baztertzailea izango.

5.5. Horrez gain, euskara-proba bat egingo da. Proba hori nahitaezkoa eta baztertzailea izango da eskakizun gisa ezarritako hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituzten hautagaienentzat, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da lanpostua eskuratzeko eskakizun gisa ezarritako hizkuntza-eskakizunik ez duten plazak lortu nahi dituzten pertsonentzat. Proba horren bidez, lanpostu bakoitzaren mailari dagokion euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatuko da, gai horretan gaitutako erakunde baten bidez (euskaltegia).

Ezagutza-maila jakin bat eskatzen duten lanpostuak lortu nahi dituztenek gai edo ez-gai kalifikazioa jasoko dute. Ez dute proba hori egin beharko kasu bakoitzean eskatzen den mailaren edo maila homologagarriaren euskararen ezagutza-ziurtagiri ofiziala dutenek, edo, hala badagokio, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskar-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria dutenek.

5.6. Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, eta deitzen zaien unean proba batera edo bestera aurkezten ez bada, bertan parte hartzeko eskubidea galduko dute automatikoki, eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, behar bezala justifikatutako eta Hautaketa Batzordeak libreki balioetsitako kasuetan izan ezik.

Behar diren egokitzapenak egingo zaizkie probak egiteko egokitzapen berezia behar duten dibertsitate funtzionaleko pertsoneri, gainerako parte-hartzaileen aukera berak izan ditzaten, betiere horrekin probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun-maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

Era berean, probak egiten diren prozesuetan edo hautagaiak bertaratzea eskatzen duten beste jarduera batzuetan, haurdunaldi, erditze edo edoskitzaroko egoerak, behar bezala egiaztatuta, egintza egiteko denbora eta lekua aldatzea justifikatzen duen kausa izan daitezke, edo baita kaltetuentzako ezohiko deialdiak egitea ere. Aldaketa-eskaerei erantzuteak berekin ekarriko du hautagai guztien konkurrentzia-berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren antolaketa-neurriak hartzea.

SEIGARRENA. AZKEN KALIFIKAZIOA ETA BEHIN BETIKO SAILKAPENA.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa kalkulatzeko, batu egingo dira oposizio-fasean eta/edo lehiaketa-fasean lortutako puntuazioak, prozesuaren tipologiaren arabera, gehi euskararen ezagutzaren balorazioa, lanpostua eskuratzeko baldintza ez den kasuetan, hautaketa-prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoean adierazten den baremoari jarraikiz, hala badagokio.

Behin betiko sailkapen-zerrendan, izangai bakoitzaren lehentasun-ordena adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera, eta, hala badagokio, berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren, eta ez da aplikatuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legearen 20.1.a) artikuluan aurreikusitako lehentasun-klausula, ez baitago emakumeen azpiordezkaritzarik deitutako lanpostuan:

- Deitutako lanpostuan erakundean denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Erakundean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Deitutako plazaren berdina edo baliokidea den plaza batean erakunde desberdinetan zerbitzu-denbora gehiago eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Zozketa publikoa.

ZAZPIGARRENA. INKORPORAZIOA.

Hautaketa-prozesu bakoitzean hautatutako izangaiak sozietatean sartuko dira, lan-kontratu mugagabea formalizatuz ezartzen diren epeetan, eta sozietatearen araudiaren arabera arautuko dira.

Lanpostu bereko dotazio bat baino gehiago eskaintzen badira, Zuzendaritza Gerentziak esleipen zehatza egingo du, behin betiko sailkapen-ordena errespetatuz.

Era berean, hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, pertsona horiek eskatzen zaizkien dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, horretarako ezartzen den epean, eta hautaketa-prozesuan zehar modu frogagarrian egiaztatu ez diren dokumentuak edo prozesuan zehar mantendu behar diren eskatzaileen baldintza pertsonalei buruzkoak soilik aurkeztu beharko dituzte, hala nola ezgaitasun- edo bateraezintasun-zirkunstantziarik ez izatea.

Adierazitako epearen barruan dokumentazioa aurkezten ez dutenek, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edo dokumentazioa aztertuta ikusten bada eskatutako baldintzaren bat betetzen ez dutela, edo dagozkien zereginak betetzeko eskatzen den gaitasuna ez dutela, ezin izango dute lan-kontratu finkoko langile izan, eta haien jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

ZORTZIGARRENA. ARGITALPENAK.

Hautaketa-prozesuen deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta deialdia egin duen erakundearen helbide elektronikora bidaliko da: www.donostia.eus/vivienda.

Hautaketa-prozesuetan zehar, prozesuaren garapenarekin lotutako alderdi guztiekin lotutako informazio guztia <http://www.donostia.eus/vivienda> helbide elektronikoan argitaratuko da, jakinarazpenetarako, hautaketa-prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epearen hasiera barne.

BEDERATZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.

Parte-hartzaileek beren eskabideetan emandako datu pertsonalak eta deialdi honen xede den prozesuan ematen dituztenak, tratamenduaren arduradun gisa, DONOSTIAKO ETXEGINTZAK (helbidea: Peñaflorida 14-1, Donostia, Gipuzkoa; IFZ: Q2000537G) tratatuko ditu, hautaketa-prozesu horretan duten parte-hartzea kudeatzeko, eta izan-gaiak berak eskatuta kontratuaren aurreko neurriak aplikatzean oinarrituta.

DONOSTIAKO ETXEGINTZAK datuak babesteko ordezkari bat (DPO) izendatu du. Ordezkar hori erakundearen pribatasuna kudeatzeaz eta kontrolatzeaz arduratuko da, eta harekin harremanetan jarri ahal izango da dbo@donostia.eus helbide elektronikoa-
ren bidez.

DONOSTIAKO ETXEGINTZAK parte-hartzaileen datu pertsonalak gordeko ditu deialdi honen xede den hautaketa-prozesua behar bezala gauzatzeko behar den denboran, eta erakundeak bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar dituen kontserbazio-epe gehigarrietan.

Deialdi honen xede den hautaketa-prozesua publikotasun-printzipioak arautzen du, eta, beraz, zortzigarren oinarrian adierazitako bitartekoan argitaratuko dira onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, bai eta parte-hartzaileek lortutako puntuazioak eta azken emaitzak ere. Nortasuna NAN zenbakiaren bidez jasoko da.

Argitalpen hori alde batera utzita, zeinak interes publikoan oinarritutako datu-

komunikazioa baitakar, eta legeak aginduta nahitaezkoa den kasuetan izan ezik (adibidez, epaileak, auzitegiak eta/edo agintari publikoak), parte-hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkio hirugarren bati komunikatuko. Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak ere ez daude aurrez ikusita.

Parte-hartzaileek honako eskubide hauek izango dituzte: (i) beren datu pertsonaletarako irispidea eskatzea, bai eta datu horiek zuzentzea, ezereztea, haien tratamendua mugatzea, haien eramangarritasuna edo haien tratamenduaren aurka egitea ere, hala dagokionean, etxegintza@donostia.eus helbidera zuzendutako idatzizko eskaera baten bidez; eta (ii) erreklamazio bat aurkeztea Datuak Babesteko Euskal Bulegoan edo eskumena duen beste edozein agintaritzatan, bereziki beren eskubideak baliatzean asebetze ez dituztenean.

Donostia, 2022ko abenduaren 23a

Rafael Farias Blanc
Zuzendari Kudeatzaile

**DONOSTIAKO ETXEGINTZA ERAKUNDE PUBLIKOAN ENPLEGUA
EGONKORTZEKO HAUTAKETA-PROZESU BEREZIEN ETA ENPLEGUA
EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO HAUTAKETA-PROZESUEN
DEIALDIA ETA OINARRIAK.**

OINARRI ESPEZIFIKOAK

Deitutako hautaketa-prozesuen zerrenda, prozesu mota, modalitatea, plaza kopurua eta bakoitzaren oinarri espezifikoak zehazten dituen eranskina:

Lanpostua	Prozesu mota	Sistema	Sartzeko modalitatea	Plazak guztira	Oinarri espezifikoaren eranskina
Sail teknikoko arduraduna	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 1
Eraikuntzako teknikaria	Egonkortzeko berezia	Oposizio-lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 2
Eraikuntzako teknikaria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 3
Etxebizitzaren eta errentamenduen ikuskatzailea	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 4
Administraria	Egonkortzeko berezia	Oposizio-lehiaketa	Orokorra	2	Eranskina 5
Administraria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	5	Eranskina 6

Hautaketa-prozesu horietan ez da lan-poltsarik sortuko.

1. ERANSKINA:

SAIL TEKNIKOKO ARDURADUNAREN ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.

DEIALDIKO PLAZAK

LANPOSTUAREN IZENA	Sail Teknikoko arduraduna
SAILKAPENA	4. lanpostuaren erref. A-A1 Taldea/azpitaldea
HAUTAKETA-SISTEMA	Lehiaketa
DEIALDIKO PLAZAK	1
EUSKARAREN EZAGUTZA	C1-nahitaezkoa
KONTRATAZIO MOTA	Lan kontratu mugagabea

BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK:

ESKATZEN DEN TITULAZIO AKADEMIKOA	Arkitektoaren unibertsitate-titulua
EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK	Bizitegi-eraikinen diseinua, mantentzea eta kontserbazioa, energia, araudi tekniko, eraikinen birgaitzea, jabetza horizontalaren legea, hiri-errentamenduen legea, babes ofizialeko araudia. Pertsonen lidergoa. Bere arloaren zuzendaritza- eta antolaketa-gaitasuna, eta beste arduradunekin taldean lan egiteko gaitasuna.

HAUTAKETA-PROZESUA:

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta gehienez ere 100 puntu lor daitezke.

Prozesuaren kalifikazioa baremo honen arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du:

A) LANBIDE-ESPERIENTZIA. Gehienez, 80 puntu.

Lanbide-esperientziatzat hartzen da sektore publikoko edo pribatuko edozein erakundetan, deialdia egin duen erakundea barne, espezialitateei edo antzeko lanbide-taldeei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuengatiko esperientzia, kontuan hartu gabe funtzionario- edo lan-harremana izan den. Baremoa honako hau izango da, tipologiaren arabera:

- a) Deitutako lanpostuari dagokion lanpostuan erakundean egindako zerbitzuak:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,95 puntu emango dira, 80 puntu gehienez.

- b) Entitatean egindako zerbitzuak, lanbide-talde bereko beste lanpostu batean:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,29 puntu emango dira, eta gehienez ere 20 puntu.
- c) Lanpostu berean edo baliokidean beste erakunde edo administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuak:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,30 puntu emango dira.
- d) Lanpostu berean edo baliokidean erakunde pribatuan emandako zerbitzuak:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,24 puntu emango dira.

c eta d ataletan lortutako puntuazioen baturak ezin izango ditu 60 puntuak gainditu.

Esperientzia-tipologia bakoitzean lan egindako aldiak batuz egingo da zenbaketa, eta esperientzia hori batu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuz. Ondorio horietarako, hilabetetzat 30 eguneko multzoa hartuko da.

Erakunde bertan emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira eta ofizioz zenbatuko dira.

Gainerako erakunde edo administrazio publikoetan emandako zerbitzuak alegatu eta egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da. Dokumentu horrek, erakunde bakoitzak erabakitzen duen ereduan, horretarako ezartzen den prozeduran eskatzen den informazioa banakatu beharko du, eta, besteak beste, lanpostuaren izena, kategoria, lan egindako aldiak, lanaldia eta funtzioen deskribapena izango dira.

Erakunde pribatuetan emandako zerbitzuak honela alegatu eta egiaztatu beharko dira:

Besteren konturako langile gisa: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo afiliatuta dauden mutualitateak emandako lan-bizitzaren txostena edo enpresa eta emandako zerbitzuen iraupen osoa eta lan-kategoria egiaztatzen dituen beste edozein dokumentu aurkeztu beharko da, eta, horrekin batera, lan-kontratuak edo enpresa-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, non berariaz jasoko baitira egindako lana, zerbitzuak ematen emandako aldiak eta lanbide-kategoria, bai eta erantzukizunpeko adierazpena bera ere (parte hartzeko eskabideak aurkezteko inprimakia, horretarako gaituko dena).

Langile autonomo gisa edo norberaren konturako langile gisa: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo dagokion araubidean afiliatuta dauden mutualitateak emandako lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko da, bai eta garatutako jardueraren deskribapena eta jarduera egin den denbora-tartea ere (norberaren konturako langileen edo autonomoen Araubide Berezian alta emanda dagoela justifikatuko da, bai eta jardueraren hasieraren adierazpena ere, non EJZ taldea edo epigrafea/atala edo jarduera-kodea agertzen baita), edo enpresaren egiaztageria, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak ezarritako Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN) kodea jasotzen duena, bai eta erantzukizunpeko adierazpena bera ere (parte hartzeko eskabideak aurkezteko inprimakia, horretarako gaituko dena).

Zenbaketari dagokionez, deitutako plazatzat hartuko dira, halaber, birsailkatu ondoren deitutako lanpostura bideratu direnak.

Lanbide-esperientziaren ondorioetarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak zenbat denbora egon diren eszedentzian senideak zaintzeko edo genero-

indarkeriagatik; zenbat denbora eman duten lanaldi-murrizketek edo baimenek amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzeko, eta zenbat denboraz baliatu diren emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak.

B) PRESTAKUNTZA ETA BESTE EZAGUTZA BATZUK: Gehienez, 20 puntu.

B.1) Prestakuntza-ikastaroak. Gehienez, 10 puntu.

Deitutako lanpostuaren xedearekin zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntza-ikastaroei 10 puntu emango zaizkie, baremo honen arabera:

- 1-50 orduko iraupena: 0,66 puntu titulu bakoitzeko.
- 51-100 orduko iraupena: 1,66 puntu titulu bakoitzeko.
- 101-150 orduko iraupena: 3,33 puntu titulu bakoitzeko.
- 151-200 orduko iraupena: 5,00 puntu titulu bakoitzeko.
- 201-250 orduko iraupena: 6,67 puntu titulu bakoitzeko.
- 251-300 orduko iraupena: 8,33 puntu titulu bakoitzeko.
- 300 orduetik gorako iraupena: 10,00 puntu titulu bakoitzeko.

B.2) Argitalpenak eta irakaskuntza- eta ikerketa-jarduera. Gehienez, 5 puntu.

Gehienez 5 puntu emango dira argitalpenengatik edo irakaskuntza-jardueragatik, baldin eta deialdiaren xede den lanpostuaren eginkizunak betetzeko eskatzen diren eginkizunekin, ezagutzekin edo trebetasunekin lotuta badaude.

B.3) Berariazko informatika-ezagutzak. Gehienez, 5 puntu.

- Erakundearen, Lotusnotes edo Prinex aplikazio espezifikoen informatika-ezagutza egiaztatuak: gehienez, 5 puntu.
- Aplikazioen ezagutza informatiko egiaztatuak: Autodesk Revit, Autocad, Presto edo GIS programak: gehienez, 2 puntu.

BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Berdinketa gertatuz gero, lehentasun-ordena honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren, eta ez da aplikatuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzari buruzko 4/2005 Legearen 20.1.a) artikuluan aurreikusitako lehentasun-klausula, deitutako lanpostuan ez baitago emakumeen azpiordezkaritarik:

- Deitutako lanpostuan erakundearen denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Erakundearen zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.

- Deitutako plazaren berdina edo baliokidea den plaza batean erakunde desberdinetan zerbitzu-denbora gehiago eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Zozketa publikoa.

LAN-POLTSA

Hautaketa-prozesu honetan ez da lan-poltsarik sortuko.

LANPOSTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

XEDEA ETA EGINKIZUN NAGUSIAK:

Proiektuak agindu aurreko eraikuntza-irizpideak ezartzea. - Proiektuak gainbegiratzea. - Obren jarraipena egiteko mekanismoak ezartzea. - Obrak onartzea. - Erakundeak kudeatzen duen parke eraikiaren mantentze-lanak, konponketak eta erreformak planifikatzea eta gauzatzea. - Zuzendaritzen koordinazioa eta obra-kontratuen jarraipena. - Bere esparruko irizpideak eta prozesuak definitzea. - Baldintzen pleguak egitea (zati teknikoa) - Atxikitako langileak zuzentzea eta kontrolatzea, agindutako gaien kudeaketa planifikatuz eta zuzenduz. - Oro har, gerentziak eskuordetutako beste edozein eginkizun, bai eta lanpostuarekin zerikusia dutenak ere, baldin eta ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak badira, antzeko izaera eta kualifikazioa dutenak.

**DONOSTIAKO ETXEGINTZA ERAKUNDE PUBLIKOAN ENPLEGUA
EGONKORTZEKO HAUTAKETA-PROZESU BEREZIEN ETA ENPLEGUA
EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO HAUTAKETA-PROZESUEN
DEIALDIA ETA OINARRIAK.**

OINARRI ESPEZIFIKOAK

Deitutako hautaketa-prozesuen zerrenda, prozesu mota, modalitatea, plaza kopurua eta bakoitzaren oinarri espezifikoak zehazten dituen eranskina:

Lanpostua	Prozesu mota	Sistema	Sartzeko modalitatea	Plazak guztira	Oinarri espezifikoaren eranskina
Sail teknikoko arduraduna	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 1
Eraikuntzako teknikaria	Egonkortzeko berezia	Oposizio-lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 2
Eraikuntzako teknikaria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 3
Etxebizitzen eta errentamenduen ikuskatzailea	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	Eranskina 4
Administraria	Egonkortzeko berezia	Oposizio-lehiaketa	Orokorra	2	Eranskina 5
Administraria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	5	Eranskina 6

Hautaketa-prozesu horietan ez da lan-poltsarik sortuko.

2. ERANSKINA:

ERAIKUNTZAKO TEKNIKARIAREN ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

DEIALDIKO PLAZAK

LANPOSTUAREN IZENA	Eraikuntzako teknikaria
SAILKAPENA	8. lanpostuaren erref. A-A2 Taldea/azpitaldea
HAUTAKETA-SISTEMA	Oposizio-Lehiaketa
DEIALDIKO PLAZAK	1
EUSKARAREN EZAGUTZA	C1-nahitaezkoa
KONTRATAZIO MOTA	Lan kontratu mugagabea

BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK:

ESKATZEN DEN TITULAZIO AKADEMIKOA	Arkitektura Teknikoko edo Eraikuntzaren Ingeniaritzako unibertsitate-titulua
EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK	- Eraikinak mantentzea eta kontserbatzea - Energia-eraginkortasuna - Eraikinak birgaitzeko araudi teknikoa
GIDABAIMEN	B

HAUTAKETA-PROZESUA:

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da, eta gehienez ere 100 puntu lor daitezke.

Prozesuaren kalifikazioa baremo honen arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du:

OPOSIZIO-FASEA: Gehienez, 60 puntu.

Nahitaezkoa izango da, eta ez da baztertzaileria izango. Lanbide-gaitasuna neurtzeko, hainbat erantzun-aukera dituzten galdera-sortak egingo dira, eta/edo deialdiko lanpostuen eginkizunekin eta jarduera-eremuarekin lotutako kasu teoriko-praktikoak ebatziko dira.

Hautagaiei probak prestatzen laguntzeko, lanpostuari eta egiaztatu beharreko ezagutzei buruzko informazioa gehitu da eranskin honen azken atalean.

LEHIAKETA-FASEA: Gehienez, 40 puntu.

AA) LANBIDE-ESPERIENTZIA: Gehienez, 32 puntu.

Lanbide-esperientziatzat hartzen da sektore publikoko edo pribatuko edozein erakundetan, deialdia egin duen erakundea barne, espezialitateei edo antzeko lanbide-taldeei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuengatiko esperientzia, kontuan hartu gabe funtzionario- edo lan-harremana izan den. Baremoa honako hau izango da, tipologiaren arabera:

- a) Deitutako lanpostuari dagokion lanpostuan erakundean egindako zerbitzuak:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,38 puntu emango dira, 32 puntu gehienez.
- b) Entitatean egindako zerbitzuak, lanbide-talde bereko beste lanpostu batean:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,12 puntu emango dira, eta gehienez ere 8 puntu.
- c) Lanpostu berean edo baliokidean beste erakunde edo administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuak:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,12 puntu emango dira.
- d) Lanpostu berean edo baliokidean erakunde pribatuan emandako zerbitzuak:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,10 puntu emango dira

c eta d ataletan lortutako puntuazioen baturak ezin izango ditu 22 puntuak gainditu.

Esperientzia-tipologia bakoitzean lan egindako aldiak batuz egingo da zenbaketa, eta esperientzia hori batu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuz. Ondorio horietarako, hilabetetzat 30 eguneko multzoa hartuko da.

Erakundean bertan emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira eta ofizioz zenbatuko dira.

Gainerako erakunde edo administrazio publikoetan emandako zerbitzuak alegatu eta egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da. Dokumentu horrek, erakunde bakoitzak erabakitzen duen ereduan, horretarako ezartzen den prozeduran eskatzen den informazioa banakatu beharko du, eta, besteak beste, lanpostuaren izena, kategoria, lan egindako aldiak, lanaldia eta funtzioen deskribapena izango dira.

Erakunde pribatuetan emandako zerbitzuak honela alegatu eta egiaztatu beharko dira:

Besteren konturako langile gisa: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo afiliatuta dauden mutualitateak emandako lan-bizitzaren txostena edo enpresa eta emandako zerbitzuen iraupen osoa eta lan-kategoria egiaztatzen dituen beste edozein dokumentu aurkeztu beharko da, eta, horrekin batera, lan-kontratuak edo enpresa-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, non berariaz jasoko baitira egindako lana, zerbitzuak ematen emandako aldiak eta lanbide-kategoria, bai eta erantzukizunpeko adierazpena bera ere (parte hartzeko eskabideak aurkezteko inprimakia, horretarako gaituko dena).

Langile autonomo gisa edo norberaren konturako langile gisa: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo dagokion araubidean afiliatuta dauden mutualitateak emandako lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko da, bai eta garatutako jardueraren deskribapena eta jarduera egin den denbora-tartea ere (norberaren konturako langileen

edo autonomoen Araubide Berezian alta emanda dagoela justifikatuko da, bai eta jardueraren hasieraren adierazpena ere, non EJZ taldea edo epigrafea/atala edo jarduera-kodea agertzen baita), edo enpresaren egiaztagiria, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak ezarritako Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN) kodea jasotzen duena, bai eta erantzukizunpeko adierazpena bera ere (parte hartzeko eskabideak aurkezteko inprimakia, horretarako gaituko dena).

Zenbaketari dagokionez, deitutako plazatzat hartuko dira, halaber, birsailkatu ondoren deitutako lanpostura bideratu direnak.

Lanbide-esperientziaren ondorioetarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak zenbat denbora egon diren eszedentzian senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik; zenbat denbora eman duten lanaldi-murrizketek edo baimenek amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzeko, eta zenbat denboraz baliatu diren emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatik baimenak.

B) PRESTAKUNTZA ETA BESTE EZAGUTZA BATZUK: Gehienez 8 puntu.

B.1) Titulazio akademiko ofiziala, berezko unibertsitate-tituluak eta prestakuntza akademiko ofiziala. Gehienez, 6 puntu.

6 puntu emango zaizkio lortu nahi den lanposturako eskatzen den maila bereko edo handiagoko titulazio akademiko ofiziala izateari. Maila berekoa bada, eskakizun gisa egiaztatutakoaz bestelako titulazioa izan beharko du; izan ere, ez da meritu gisa kontuan hartuko betekizuna egiaztatzeko kontuan hartzen den titulua.

B.2) Beste prestakuntza-ikastaro batzuk: Gehienez, 6 puntu.

Deitutako lanpostuaren xedearekin zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntza-ikastaroei 6 puntu emango zaizkie, baremo honen arabera:

- 1 eta 50 ordu arteko iraupena:	0,33 puntu titulu bakoitzeko.
- 51-100 orduko iraupena:	puntu 1 titulu bakoitzeko.
- 101-150 orduko iraupena:	2 puntu titulu bakoitzeko.
- 151-200 orduko iraupena:	3 puntu titulu bakoitzeko.
- 201-250 orduko iraupena:	4 puntu titulu bakoitzeko.
- 251-300 orduko iraupena:	5 puntu titulu bakoitzeko.

B.3) Informatikako ezagutzak. Gehienez, 4 puntu.

- Erakundearen, Lotusnotes edo Prinex aplikazio espezifikoen informatika-ezagutza egiaztatuak: Gehienez, 2 puntu.
- Aplikazioen ezagutza informatiko egiaztatuak: Revit, Autocad edo Presto: Gehienez, 2 puntu.
- IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatutako informatika-ezagutzak: Gehienez, puntu 1.

Honako ziurtagiri hauek baloratuko dira:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 edo geroagokoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.

Ziurtagiri horiek baremo honen arabera baloratuko dira:

- Oinarrizko mailako ziurtagiri bakoitzeko: 0,25 puntu.
- Maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko: 0,5 puntu.
- Maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko: 0,5 puntu.

Modulu bereko oinarrizko maila eta maila aurreratua egiaztatuz gero, aurreratua baino ez da baloratuko.

Ondorengo bertsioaren aplikazio baten ziurtagiriek aurreko bertsioak baliogabetuko dituzte, aurreko bertsioan izangaiak maila aurreratua lortu badu izan ezik; kasu horretan, maila aurreratua baloratuko da.

BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEA

Berdinketa gertatuz gero, lehentasun-ordena honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren, eta ez da aplikatuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeko buruzko 4/2005 Legearen 20.1.a) artikuluan aurreikusitako lehentasun-klausula, deitutako lanpostuan ez baitago emakumeen azpiordezkaritzarik:

- Deitutako lanpostuan erakundean denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Erakundean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Deitutako plazaren berdina edo baliokidea den plaza batean erakunde desberdinetan zerbitzu-denbora gehiago eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Zozketa publikoa.

LAN-POLTSA:

Hautaketa-prozesu honetan ez da lan-poltsarik sortuko.

LANPOSTUARI BURUZKO INFORMAZIOA:

XEDEA ETA EGINKIZUN NAGUSIAK:

Arduradunaren jarraibideen pean, eraikitako parkearen mantentze prebentibo eta/edo zuzentzaileko obren egikaritzearen kontrola eta jarraipena. - Eraikuntza berriko obren jarraipena eta kontrola. - Eraikuntza- eta mantentze-obren aurrekontuaren eta kalitatearen jarraipena eta kontrola. - Eraikuntza- eta/edo mantentze-obrei buruzko txosten teknikoak egitea. - Eraikitako parkearen mantentze- eta esku hartze-planak egitea eta horien jarraipena egitea. - Orokorrean, gerentziak eskuordetutako beste edozein eginkizun eta lanpostuarekin lotutako beste edozein zeregin, ezarritako helburuak lortzeko zerbitzu-arrazoiengatik agintzen zaizkionak edo beharrezkoak direnak, antzeko izaera eta kualifikazioa dutenak.

LANPOSTUAREN EDUKIAREKIN LOTUTA EGIAZTATU BEHARREKO EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK:

Eraikinen mantentzea eta kontserbazioa, energia-efizientzia, araudi teknikoa, eraikinen birgaitzea. Talde-lana:

- Donostiako Etxegintzaren jarduera
- Etxegintzako alokairuko etxebizitza eta bitokien parkea: sustapenak; eraikin motak; ezaugarri teknikoak eta eraikuntzakoak; instalazioak; erabilera-araubidea; mantentze-programak.
- Etxegintzaren alokairuko etxebizitza eta bitokietako gorabeherak kudeatzea; aplikazioak, sistemak, prozedurak.
- Eraikinak kontserbatzea eta mantentzea. Mantentze-ekintzak (mantentze prebentiboa) eta konponketa-ekintzak (mantentze zuzentzailea). Ekintzen programazioa: Erabilera eta Mantentze Plana
- 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, EAEko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa. EITaren edukia eta prozedura. Esku hartzen duten agenteak. EAEko Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Erregistroa.
- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. Eraikinen irisgarritasun-baldintzak. EKT-DB-SUAN jasotako irisgarritasun-xedapenekiko lotura. Etxebizitzetan irisgarritasuna sustatzeko udal-ordenantza.
- Fatxada tradizionala. Termino-isolamendua eta kondentsazioak. Harria fatxaden estalduretan. Jartzeko sistemak.
15 puntu emango zaizkio lortu nahi den lanposturako eskatzen den maila bereko edo handiagoko titulazio akademiko ofiziala izateari. Maila berekoa bada, betekizun gisa egiaztatutakoaz bestelako titulazioa izan beharko du; izan ere, ez da meritu gisa hartuko baldintza egiaztatzeko kontuan hartzen den titulua.

B.2) Beste prestakuntza-ikastaro batzuk. Gehienez, 15 puntu.

Deitutako lanpostuaren xedearekin zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntza-ikastaroei 15 puntu emango zaizkie, baremo honen arabera:

- 1 eta 50 ordu arteko iraupena: puntu 1 titulu bakoitzeko.
- 51 eta 100 ordu arteko iraupena: 2,5 puntu titulu bakoitzeko.
- 101 eta 150 ordu arteko iraupena: 5 puntu titulu bakoitzeko.
- 151 eta 200 ordu arteko iraupena: 7,5 puntu titulu bakoitzeko.
- 201 eta 250 ordu arteko iraupena: 10 puntu titulu bakoitzeko.
- 251 eta 300 ordu arteko iraupena: 12,5 puntu titulu bakoitzeko.
- 300 ordutik gorako iraupena: 15 puntu titulu bakoitzeko.

Betekizun gisa egiaztatutakoaz bestelako titulazioa izan beharko du.

B.3) Informatikako ezagutzak. Gehienez, 6 puntu.

- Erakundearen, Lotusnotes edo Prinex aplikazio espezifikoen informatika-ezagutza egiaztatuak: gehienez, 4 puntu.
- IT Txartelaren ziurtagen-sistemaren bidez egiaztatutako informatika-ezagutzak: 2 puntu, gehienez.

Honako ziurtagiri hauek baloratuko dira:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 edo geroagokoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.

Ziurtagiri horiek baremo honen arabera baloratuko dira:

- Oinarrizko mailako ziurtagiri bakoitzeko: 0,5 puntu.

- Maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko: puntu 1.
- Maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko: puntu 1.

Modulu bereko oinarrizko maila eta maila aurreratua egiaztatuz gero, aurreratua baino ez da baloratuko.

Ondorengo bertsioaren aplikazio baten ziurtagiriek aurreko bertsioak baliogabetuko dituzte, aurreko bertsioan izangaiak maila aurreratua lortu badu izan ezik; kasu horretan, maila aurreratua baloratuko da.

EUSKERA

Honako puntuazio hau emango da euskara jakitea baldintza ez denean:

- B1 maila: 5 puntu.
- B2 maila: 10 puntu.

BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Berdinketa gertatuz gero, lehentasun-ordena honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren, eta ez da aplikatuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeko buruzko 4/2005 Legearen 20.1.a) artikuluan aurreikusitako lehentasun-klausula, deitutako lanpostuan ez baitago emakumeen azpiordezkaritzarik:

- Deitutako lanpostuan erakundean denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Erakundean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Deitutako plazaren berdina edo baliokidea den plaza batean erakunde desberdinetan zerbitzu-denbora gehiago eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Zozketa publikoa.

LAN-POLTSA

Hautaketa-prozesu honetan ez da lan-poltsarik sortuko.

LANPOSTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

XEDEA ETA EGINKIZUN NAGUSIAK:

EGINKIZUN OROKORRAK:

Administrazio-laguntzako lanak egitea langilea kokatuta dagoen Unitatean, jendearentzako, pertsonalari eta telefonoari arreta emateko zereginak, administrazio-eta kontabilitate-izapideak, mekanografia eta artxiboa eginez. - Jendearentzako arreta, pertsonala eta telefonikoa. - Ordenagailuak eta programa informatikoak erabiltzea, Microsoft Office (Word, Access, Excel), arlo bakoitzeko aplikazio korporatibo espezifikoak eta taldean lan egiteko aplikazioak barne. - Administrazio-laguntza espedienteak, kontratuak, argitalpenak, iragarkiak, jakinarazpenak eta abar izapidetzerakoan. - Dokumentuen, gorabeheren eta abarren sarrera- eta irteera-erregistroak. - Eguneratzea, altak, bajak, gorabeherak eta abar mota guztietan. - Espedienteak eta dokumentuak antolatzea, sailkatzea eta artxibatzea. - Ziurtagiriak, irizpenak eta mekanografiako, fotokopiatzeko eta testua eta taulak editatzeko zeregin orokorrak. - Likidazioak, zergak, tasak, prezio publikoak eta abar.

EGINKIZUN ESPEZIFIKOAK SAILKA: Funtzio orokorrak alde batera utzi gabe, laguntza administratiboa ematea arloari dagozkion zereginiei, hala nola:

ONDARE SAILA:

Bezeroei arreta ematea, errentamendu-kontratuak prestatzea, etxebizitzak bisitatzea, bezeroen sinadurari arreta ematea. - Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko baldintzak betetzen direla berrikusteko eta barematzeko prozesuen eragiketa.

EKONOMIA ETA FINANTZA SAILA

Kontabilitate-operatiba - Fakturak jaso, kontabilizatu eta artxibatzea - Banku-sortak eta horien operatiba - Gastu komunen eta jasanarazi beharreko kontsumoen urteko aurrekontu eta likidazioak prestatzea. - Erkidego-kuoten eta kontsumoen kalkulu-egoerak. - Fakturazioak, kobrantzak, ordainketak eta kontabilitate-zereginak. - Giza baliabideak kudeatzeko laguntza administratiboa

ERREHABILITAZIO SAILA

Udalak birgaitzeko laguntzen espedienteak izapidetzea: aurreko araudiaren arabera izapidetutako espedienteak eta Ordenantza berriarekin izapidetzen direnak kudeatzea. - Administrazio autonomikoaren laguntza-espedienteak izapidetzea: dokumentazioa jasotzea, kontrolatzea, Eusko Jaurlaritzaren bulegoetan pertsonalki entregatzea eta espedientearen jarraipena egitea. - Birgaitzeko laguntzen espedienteen operatiboa, loturiko dokumentu-kudeaketa.

ALOKABIDE SAILA

Hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko programarako etxebizitzak erakartzea. - Egon daitekeen errenta merkatuko prezioen arabera zenbatetzea. - Etxebizitzaren jabearekin errenta negoziatzea, egin beharreko obrei eta obren kontrolari buruzko txosten orientagarriak barne. - Balizko maizterrei laguntzeko bisitak. - Etxebizitzaren inbentarioak egitea. - Errentamendu-kontratuak prestatzea

eta sinatzea. - Altak, bajak kontrolatzea eta errentamendu-kontratuak berritzea eta errentak kudeatzea. - Errentamendu-kontratuak irauten duen bitartean gorabeherak kudeatzea. - Errentak eta zorrak berriz negoziatzea, berankortasuna kudeatzea. - Kontratua amaitzean etxebizitzak berrikustea eta fidantza likidatzea.

DONOSTIAKO ETXEGINTZA ERAKUNDE PUBLIKOAN KUDEAKETA-TEKNIKARIAREN BARNE-SUSTAPENENKO PROZESUAREN DEIALDIA ETA OINARRIAK.

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da Donostiako Etxegintza Erakunde Publikoan zenbait lanpostu sustatzea, babes ofizialeko etxebizitzak, gazteentzako eta adinekoentzako apartamentuak, hutsik dauden etxebizitza pribatuen alokairua eta Donostiako eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak sustatu, esleitu eta kudeatzeko.

Deialdi honen xede diren lanpostuak erakundearen 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren esparruan sartuta daude.

Deitutako hautaketa-prozesuak, prozesu mota, modalitatea, plaza kopurua eta bakoitzaren oinarri espezifikoak zehazten dituen eranskina honako hauek dira:

Lanpostua	Prozesu mota	Sistema	Sartzeko modua	Plazak guztira	Oinarri espezifikoaren eranskina
Kudeaketako teknikari	Barne-igoera	Oposizio-lehiaketa	Orokorra	2	Barne-sustapenaren eranskina

Deialdia barne-sustapeneko da, eta langileak hautatzeko enpresa batek kudeatuko ditu deitutako hautaketa-prozesuak, dokumentu honetan jasotako baldintzak eta berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak betez, eta deialdiaren arau orokorrak eta dokumentu honetan jasotako hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak betez.

Deitutako hautaketa-prozesuetatik eratorritako kontratazioak lan-kontratu mugagabearen bidez egingo dira.

Hautaketa-prozesu horiek ez dute lan-poltsarik sortuko.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZA OROKORRAK.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izango dute baldintza baztertzailerik ez diren hauek betetzen dituztenek, kasu bakoitzerako ezarritako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta baldintza horiek betetzen jarraitu beharko dute kontratua sinatu arte:

- a) Legezko bizilekua Espainian izatea eta lan-baimena.

- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Deitutako lanpostuetako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- d) Eskatzen den titulazioa izatea, edo agiriok jaso ahal izateko eskubideak ordainduta egotea, lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikoetan ezarritako berariazko betekizunen arabera. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.
- e) Deitutako lanpostu bakoitzerako eskatzen den beste edozein betekizun espezifikoa, oinarri espezifikoen arabera.
- f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean ez erortzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, honako hauek egin beharko dira:

- 1.- Horretarako prestatuko den eskabide-orria betetzea.
- 2.- Ezarritako epean aurkeztea.

Era berean, horiek aurkezteko epea amaitzen denean, eskatutako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira, bigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Parte hartu nahi dutenek eskabide bat aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten hautaketa-prozesu bakoitzeko.

Hautaketa-prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epearen irekiera zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpenean argitaratuko da (www.donostia.eus/vivienda). Nolanahi ere, hautaketa-prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epea 2023ko abenduaren 31 baino lehen irekiko da.

Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskabideak hamar egun balioduneko epean aurkeztuko dira, irekiera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hautaketa-prozesu bakoitzerako epea irekitzen denean zehaztuko den prozeduraren arabera aurkeztuko dira eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da alegatzen diren baldintzak eta merezimenduak betetzeko erreferentziatzeko data.

LAUGARRENA. ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDA.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, berrikusi egingo dira, lanpostu bakoitzerako eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta onartutako en eta

baztertutako behin-behineko zerrendak argitaratuko dira zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpen-bidean.

Zerrenda horietan, baztertzeko arrazoia adieraziko da, hala badagokio, eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko, zerrenda horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta horiek ebatzita, bitarteko bera erabiliz argitaratuko dira onartutako behin betiko zerrendak.

BOSGARRENA. HAUTAKETA-PROZESUAK.

Oinarri orokor hauetan jasotako irizpide eta ezaugarri orokorren eta deitutako lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikoetan jasotako irizpide eta ezaugarri espezifikoaren arabera garatuko dira hautaketa-prozesuak, harik eta lanpostu bakoitzerako izangaien azken kalifikazioen behin betiko zerrendak argitaratu arte.

5.1. Horretarako, hautaketa-batzorde bat eratuko da hautaketa-prozesu bakoitzerako, gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatuarekin, eta inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak errespetatuko dira kideak izendatzean.

Hautaketa-batzordeak hautaketa-prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna zaindiko ditu, baita proben konfidentzialtasuna eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzea ere. Era berean, hautaketa-prozesuetan sortzen diren zalantzak ebazteko ahalmena izango du, bai eta prozesuak behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartzeko ere, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hautaketa-batzordeak aholkulari edo enpresa espezializatuak jarri ahal izango ditu bere lanetan, egokitzat jotzen dituen kudeaketak eta probak egiteko, hala nola eskaerak jasotzeko, probak diseinatzeko, gauzatzeko eta baloratzeko.

Hautaketa-batzordeko kideren bat ezin bada bertaratu, Zuzendaritzak hura ordezkatzeko duen pertsona izendatuko du.

5.2. Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpenean egindako argitalpenen ondoren, hiru egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, horretarako ezartzen den prozedurari jarraituz.

5.3. Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da.

5.4. Oposizio- eta lehiaketa-faseen ezaugarri orokorrak:

OPOSIZIO-FASEA:

Oposizio-fasea nahitaezkoa eta ez-baztertzaila izango da, eta, bertan, lanbide-gaitasuna baloratuko da. Horretarako, hainbat erantzun-aukera dituzten galdera-sortak egingo dira, eta/edo deialdiko lanpostuen eginkizunekin eta jarduera-eremuarekin lotutako kasu teoriko-praktikoak ebatziko dira.

Hautagaiei probak prestatzen laguntzeko, lanpostu bakoitzaren oinarri espezifikoetan horri buruzko informazioa eta egiaztatu beharreko ezagutzak jasotzen dira.

LEHIAKETA-FASEA:

Lehiaketa-fasean, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira. Nolanahi ere, aurkezten diren merezimenduen erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da; horretarako, behar bezala egiaztatu beharko dira horretarako ezartzen den epean eta ezartzen den alegazio- eta egiaztapen-prozedurari jarraituz.

Baloratu daitezkeen merezimenduak eta baremoa hautaketa-prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehazten dira, eta horietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituta egingo da balorazioa, kasu bakoitzerako ezarritako baremoaren arabera.

Lehiaketa ez da baztertzaileria izango.

5.5. Horrez gain, euskara-proba bat egingo da. Proba hori nahitaezkoa eta baztertzaileria izango da eskakizun gisa ezarritako hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituzten hautagaienentzat, eta borondatezkoa eta ez-baztertzaileria izango da lanpostua eskuratzeko eskakizun gisa ezarritako hizkuntza-eskakizunik ez duten plazak lortu nahi dituzten hautagaienentzat. Proba horren bidez, lanpostu bakoitzaren mailari dagokion euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatuko da, gai horretan gaitutako erakunde baten bidez (euskaltegia).

Ezagutza-maila jakin bat eskatzen duten lanpostuak lortu nahi dituztenek gai edo ez-gai kalifikazioa jasoko dute. Ez dute proba hori egin beharko kasu bakoitzean eskatzen den mailaren edo maila homologagarriaren euskararen ezagutza-ziurtagiri ofiziala dutenek, edo, hala badagokio, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria dutenek.

5.6. Izangaiei deialdi bakarria egingo zaie, eta deitzen zaien unean ezein probetara aurkezten ez bada, parte hartzeko eskubidea galduko dute automatikoki, eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, behar bezala justifikatutako eta Hautaketa Batzordeak libreki aintzat hartutako kasuetan izan ezik.

Behar diren egokitzapenak egingo zaizkie probak egiteko egokitzapen berezia behar duten dibertsitate funtzionaleko pertsoneri, gainerako parte-hartzaileen aukera berak izan ditzaten, betiere horrekin probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun-maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

Era berean, probak egiten diren prozesuetan edo hautagaiak bertaratzea eskatzen duten beste jarduera batzuetan, haurdunaldi, erditze edo edoskitzaroko egoerak, behar bezala egiaztatuta, egintza egiteko denbora eta lekua aldatzea justifikatzen duen kausa izan daitezke, edo baita kaltetuentzako ezohiko deialdiak egitea ere. Aldaketa-eskaerei erantzuteak berekin ekarriko du hautagai guztien konkurrentzia-berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren antolaketa-neurriak hartzea.

SEIGARRENA. AZKEN KALIFIKAZIOA ETA BEHIN BETIKO SAILKAPENA.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa kalkulatzeko, batu egingo dira oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuazioak, prozesuaren tipologiaren arabera, gehi euskararen ezagutzaren balorazioa, lanpostua eskuratzeko baldintza ez den kasuetan, hautaketa-prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten den baremoari jarraikiz, hala badagokio.

Behin betiko sailkapen-zerrendan, izangai bakoitzaren lehentasun-ordena adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera, eta, hala badagokio, berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren, eta ez da aplikatuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legearen 20.1.a) artikuluan aurreikusitako lehentasun-klausula, ez baitago emakumeen azpiordezkaritzarik deitutako lanpostuan:

- Deitutako lanpostuan erakundean denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Erakundean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Deitutako plazaren berdina edo baliokidea den plaza batean erakunde desberdinetan zerbitzu-denbora gehiago eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Zozketa publikoa.

ZAZPIGARRENA. INKORPORAZIOA.

Hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak lan-kontratu mugagabea formalizatuz ezartzen diren epeetan sartuko dira deitutako plazetan.

Lanpostu bereko dotazio bat baino gehiago eskaintzen badira, Zuzendaritza Gerentziak esleipen zehatza egingo du, behin betiko sailkapen-ordena errespetatuz.

Era berean, hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, pertsona horiek eskatzen zaizkien dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, horretarako ezartzen den epean, eta hautaketa-prozesuan zehar modu frogagarrian egiaztatu ez diren dokumentuak edo prozesuan zehar mantendu behar diren eskatzaileen baldintza pertsonalei buruzkoak soilik aurkeztu beharko dituzte, hala nola ezgaitasun- edo bateraezintasun-zirkunstantziarik ez izatea.

Aipatutako epearen barruan dokumentazioa aurkezten ez dutenek, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edo dokumentazioa aztertuta ikusten bada ez dutela eskatutako betekizunen bat betetzen, edo ez dutela dagozkien zereginak betetzeko eskatzen den gaitasuna, ezin izango dute deitutako lanpostua sustatu, eta bertan behera geratuko

dira beren jarduketa guztiak, hargatik eragotzi gabe eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna.

ZORTZIGARRENA. ARGITALPENAK.

Hautaketa-prozesuen deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta deialdia egin duen erakundearen helbide elektronikora bidaliko da: www.donostia.eus/vivienda.

Hautaketa-prozesuetan zehar, prozesuaren garapenarekin lotutako alderdi guztiekin lotutako informazio guztia www.donostia.eus/vivienda helbide elektronikoa argitaratuko da, jakinarazpenetarako, hautaketa-prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epearen hasiera barne.

BEDERATZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.

Parte-hartzaileek beren eskabideetan emandako datu pertsonalak eta deialdi honen xede den prozesuan ematen dituztenak, tratamenduaren arduradun gisa, DONOSTIAKO ETXEGINTZAK (helbidea: Peñaflorida 14-1, Donostia, Gipuzkoa; IFZ: Q2000537G) tratatuko ditu, hautaketa-prozesu horretan duten parte-hartzea kudeatzeko, eta izan-gaiak berak eskatuta kontratuaren aurreko neurriak aplikatzean oinarrituta.

DONOSTIAKO ETXEGINTZAK datuak babesteko ordezkari bat (DPO) izendatu du. Ordezkar hori erakundearen pribatutasuna kudeatzeaz eta kontrolatzeaz arduratuko da, eta harekin harremanetan jarri ahal izango da dbo@donostia.eus helbide elektronikoa-ren bidez.

DONOSTIAKO ETXEGINTZAK parte-hartzaileen datu pertsonalak gordeko ditu deialdi honen xede den hautaketa-prozesua behar bezala gauzatzeko behar den denboran, eta erakundeak bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar dituen kontserbazio-epe gehigarrietan.

Deialdi honen xede den hautaketa-prozesua publikotasun-printzipioak arautzen du, eta, beraz, zortzigarren oinarrian adierazitako bitartekoan argitaratuko dira onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, bai eta parte-hartzaileek lortutako puntuazioak eta azken emaitzak ere. Nortasuna NAN zenbakiaren bidez jasoko da.

Argitalpen hori alde batera utzita, zeinak interes publikoan oinarritutako datu-komunikazioa baitakar, eta legeak aginduta nahitaezkoa den kasuetan izan ezik (adibidez, epai-leak, auzitegiak eta/edo agintari publikoak), parte-hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkio hirugarren bati komunikatuko. Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak ere ez daude aurrez ikusita.

Parte-hartzaileek honako eskubide hauek izango dituzte: (i) beren datu pertsonaletarako irispidea eskatzea, bai eta datu horiek zuzentzea, ezereztea, haien tratamendua mugatzea, haien eramangarritasuna edo haien tratamenduaren aurka egitea ere, hala dago-kionean, etxegintza@donostia.eus helbidera zuzendutako idatzizko eskaera baten bi-



▶ Etxegintza
Vivienda

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

dez; eta (ii) erreklamazio bat aurkeztea Datuak Babesteko Euskal Bulegoan edo esku-
mena duen beste edozein agintaritzatan, bereziki beren eskubideak baliatzean asebate
ez dituztenean.

Donostia, 2022ko abenduaren 23a

Rafael Farias Blanc
Zuzendari Kudeatzaile

**DONOSTIAKO ETXEGINTZA ERAKUNDE PUBLIKOAN KUDEAKETA-
TEKNIKARIAREN BARNE-SUSTAPENeko PROZESUAREN DEIALDIA
ETA OINARRIAK.**

OINARRI ESPEZIFIKOAK

Deitutako hautaketa-prozesuen zerrenda, prozesu mota, modalitatea, plaza kopurua eta bakoitzaren oinarri espezifikoak zehazten dituen eranskina:

Lanpostua	Prozesu mota	Sistema	Sartzeko modua	Plazak guztira	Oinarri espezifikoaren eranskina
Kudeaketako teknikari	Barne-igoera	Oposizio-lehiaketa	Orokorra	2	Barne-sustapenaren eranskina

Hautaketa-prozesu horietan ez da lan-poltsarik sortuko.

ERANSKINA BARNE-SUSTAPENA:

KUDEAKETAKO TEKNIKARIAREN BARNE-SUSTAPENEN PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

DEIALDIKO PLAZAK

LANPOSTUAREN IZENA	Kudeaketako teknikaria
SAILKAPENA	Lanpostuaren erref. 9 Taldea/azpitaldea A-A2
HAUTAKETA-SISTEMA	Oposizio-lehiaketa
DEIALDIKO PLAZAK	2
EUSKARAREN EZAGUTZA	C1 - nahitaezkoa
KONTRATAZIO MOTA	Kontratu mugagabea

BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK:

Onartuak izateko eta, hala badagokio, prozeduran parte hartzeko, baldintza baztertzailerik hauek betetzen dituztenek, ezarritako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta baldintza horiek betetzen jarraitu beharko dute kontratua sinatu arte:

- a) Donostiako Etxegintzarekin aldeztu aurretik lan-harreman finkoa eta mugagabea izatea.
- b) C-C1 taldeko langileak izatea, Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintzaren zerbitzuan, lanpostu hauetakoren batean:
 - Kontabilitate-kudeaketako administraria (Erref.: 12)
 - Kontratuak kudeatzeko administraria (Erref.: 13)
 - Administraria (Erref.: 14)
- c) Enpresen Zuzendaritza, Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomia Zientzietako, Enpresa Zientzietako edo Enpresa Zientzietako Lizentziatura, Gradua edo Unibertsitateko Diplomatura titulua edo baliokidea izatea, edo titulu horri dagokion eskubideak ordainduta izatea

HAUTAKETA-PROZESUA

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da, eta gehienez ere 100 puntu lor daitezke.

Prozesuaren kalifikazioa baremo honen arabera emandako puntu baturak zehaztuko du:

OPOSIZIO-FASEA: Gehienez, 60 puntu.

Nahitaezkoa izango da, eta ez da baztertzailerik izango. Lanbide-gaitasuna neurtzeko, proba batzuk egingo dira. Galdera-sortak izango dira, eta erantzuteko hainbat aukera izango dira, edo/eta deialdiko lanpostuaren eginkizunekin eta jarduera-eremuarekin

lotutako kasu teoriko-praktikoak ebatziko dira.

Hautagaiei probak prestatzen laguntzeko, lanpostuari eta egiaztatu beharreko ezagutzei buruzko informazioa gehitu da eranskin honen azken atalean.

LEHIAKETA-FASEA: Gehienez, 40 puntu.

A) LAN-ESPERIENTZIA: Gehienez, 32 puntu.

Lanbide-esperientziatzat hartzen da sektore publikoko edo pribatuko edozein erakundetan, deialdia egin duen erakundea barne, espezialitateei edo antzeko lanbide-taldeei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuengatik esperientzia, kontuan hartu gabe funtzionario- edo lan-harremana izan den. Baremoa honako hau izango da, tipologiaren arabera:

- a) Deitutako lanpostuari dagokion lanpostuan erakundean egindako zerbitzuak:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,38 puntu emango dira, 32 puntu gehienez.
- b) Entitatean egindako zerbitzuak, lanbide-talde bereko beste lanpostu batean:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,12 puntu emango dira, eta gehienez 8 puntu.
- c) Lanpostu berean edo baliokidean beste erakunde edo administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuak:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,12 puntu emango dira.
- d) Lanpostu berean edo baliokidean erakunde pribatuan emandako zerbitzuak:
Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,10 puntu emango dira.

b, c eta d ataletan lortutako puntuazioen baturak ezin izango ditu 22 puntu gainditu.

Esperientzia-tipologia bakoitzean lan egindako aldiak batuz egingo da zenbaketa, eta esperientzia hori batu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuz. Ondorio horietarako, hilabetetzat 30 eguneko multzoa hartuko da.

Erakundean bertan emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira eta ofizioz zenbatuko dira.

Gainerako erakunde edo administrazio publikoetan emandako zerbitzuak alegatu eta egiaztatu egin beharko dira, egiaztagiri bidez. Dokumentu horrek, erakunde bakoitzak erabakitzen duen eredian, horretarako ezartzen den prozeduran eskatzen den informazioa banakatu beharko du, eta, besteak beste, lanpostuaren izena, kategoria, lan egindako aldiak, lanaldia eta funtzioen deskribapena izango dira.

Erakunde pribatuetan emandako zerbitzuak honela alegatu eta egiaztatu beharko dira:

Besteren konturako langile gisa: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo afiliatuta dauden mutualitateak emandako lan-bizitzaren txostena edo enpresa eta emandako zerbitzuen iraupen osoa eta lan-kategoria egiaztatzen dituen beste edozein dokumentu aurkeztu beharko da, eta, horrekin batera, lan-kontratuak edo enpresa-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, non berariaz jasoko baitira egindako lana, zerbitzuak ematen emandako aldiak eta lanbide-kategoria, bai eta erantzukizunpeko adierazpena bera ere (parte hartzeko eskabideak aurkezteko inprimakia, horretarako gaituko dena).

Langile autonomo gisa edo norberaren konturako langile gisa: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo dagokion araubidean afiliatuta dauden mutualitateak emandako lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko da, bai eta garatutako jardueraren deskribapena eta jarduera egin den denbora-tartea ere (norberaren konturako langileen edo autonomoen Araubide Berezian alta emanda dagoela justifikatuko da, bai eta jardueraren hasieraren adierazpena ere, non EJZ taldea edo epigrafea/atala edo jarduera-kodea agertzen baita), edo enpresaren egiaztagiria, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak ezarritako Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN) kodea jasotzen duena, bai eta erantzukizunpeko adierazpena bera ere (parte hartzeko eskabideak aurkezteko inprimakia, horretarako gaituko dena).

Lanbide-esperientziaren ondorioetarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak zenbat denbora egon diren eszedentzian senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik; zenbat denbora eman duten lanaldi-murrizketek edo baimenek amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzeko, eta zenbat denboraz baliatu diren emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatik baimenak.

B) PRESTAKUNTZA ETA BESTE EZAGUTZA BATZUK: Gehienez, 8 puntu.

B.1) Titulazio akademiko ofiziala, berezko unibertsitate-tituluak eta prestakuntza akademiko ofiziala. Gehienez, 6 puntu.

6 puntu emango zaizkio lortu nahi den lanposturako eskatzen den maila bereko edo handiagoko titulazio akademiko ofiziala izateari. Maila berekoa bada, eskakizun gisa egiaztatutakoaz bestelako titulazioa izan beharko du; izan ere, ez da meritu gisa kontuan hartuko betekizuna egiaztatzeko kontuan hartzen den titulua.

B.2) Beste prestakuntza-ikastaro batzuk. Gehienez, 6 puntu.

Deitutako lanpostuaren xedearekin zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntza-ikastaroei 6 puntu emango zaizkie, baremo honen arabera:

- 1-50 orduko iraupena: 0,33 puntu titulu bakoitzeko.
- 51 ordutik 100 ordura bitarteko iraupena: puntu 1 titulu bakoitzeko.
- 101 ordutik 150era bitarteko iraupena: 2 puntu titulu bakoitzeko.
- 151 ordutik 200 ordura bitarteko iraupena: 3 puntu titulu bakoitzeko.
- 201 ordutik 250 ordura bitarteko iraupena: 4 puntu titulu bakoitzeko.
- 251 ordutik 300 ordura bitarteko iraupena: 5 puntu titulu bakoitzeko.

B.3) Informatikako ezagutzak. Gehienez, 4 puntu.

- Erakundearen, Lotusnotes edo Prinex aplikazio espezifikoen informatika-ezagutza egiaztatuak: 2 puntu, gehienez.
- Aplikazioen ezagutza informatiko egiaztatuak: Revit, Autocad edo Presto: Gehienez, 2 puntu.
- IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatutako informatika-ezagutzak: puntu 1, gehienez.

Honako ziurtagiri hauek baloratuko dira:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 edo geroagokoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.

Ziurtagiri horiek baremo honen arabera baloratuko dira:

- Oinarrizko mailako ziurtagiri bakoitzeko: 0,25 puntu.
- Maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko: 0,5 puntu.
- Maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko: 0,5 puntu.

Modulu bereko oinarrizko maila eta maila aurreratua egiaztatuz gero, aurreratua baino ez da baloratuko.

Ondorengo bertsioaren aplikazio baten ziurtagiriek aurreko bertsioak baliogabetuko dituzte, aurreko bertsioan izangaiak maila aurreratua lortu badu izan ezik; kasu horretan, maila aurreratua baloratuko da.

BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Berdinketa gertatuz gero, lehentasun-ordena honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren, eta ez da aplikatuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeari buruzko 4/2005 Legearen 20.1.a) artikuluan aurreikusitako lehentasun-klausula, deitutako lanpostuan ez baitago emakumeen azpiordezkaritzarik:

- Deitutako lanpostuan erakundean denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Erakundean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Deitutako plazaren berdina edo baliokidea den plaza batean erakunde desberdinetan zerbitzu-denbora gehiago eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunka zenbatuko da.
- Zozketa publikoa.

LAN-POLTSA:

Hautaketa-prozesu honetan ez da lan-poltsarik sortuko.

LANPOSTUARI BURUZKO INFORMAZIOA:

XEDEA ETA EGINKIZUN NAGUSIAK:

Arduradunaren jarraibideen pean, administrazio- eta kudeaketa-espeditenteak bultzatu, kudeatu eta jarraitzea- Bere erantzukizun-eremuan sartzen diren pertsonen lana bultzatu, kudeatu eta antolatzea- Langileen artean zereginak banatu eta jarraitzea – Kudeaketa-adierazleen eta gauzatze-denboren jarraipena – Artxiboen jarraipena eta kontrola.- Alokairuko etxebizitzak eta bizitokiak kontratuak, kontratuen berrikuspenak, errenten eta zorren birnegoziarioak, berankortasunaren kudeaketa. – Etxebizitzak berreskurapenen eta zorren erreklamazioen kudeaketa - Eraikin pribatuetako bizilagunen komunitateetan eraikinak birgaitzeko prozesuak kudeatu eta bultzatzea. - Oro har, Kudeatzaileak eskuordetutako beste edozein eginkizun eta lanpostuari dagozkion eta ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren edo antzeko izaera eta kualifikazioa duten beste edozein zeregin.

LANPOSTUAREN EDUKIAREKIN LOTUTA EGIAZTATU BEHARREKO EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK:

Errentamendu-kontratuen kudeaketa, jabetza horizontalaren legea, babes ofizialeko araudia, birgaitzea, berankortasunaren kudeaketa, higiezinak berreskuratzea.

- Donostiako Etxegintzaren jardura:

Alokairuko etxebizitzak eta bizitokiak parkea: ezaugarriak; erabilera-araubidea.

Alokairuko etxebizitzak eta bizitokiak esleitzea: Etxegintzako alokairuko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak baremazio bidez esleitzeko prozeduraren oinarriak.

Birgaitzearen kudeaketa: eraikinen irisgarritasunerako eta birgaitzerako dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantza.

Donostiako Etxegintza parkearen administrazioa; kontratuen kudeaketa; gastuen aurrekontu eta likidazioak; kuoten kalkulua; fakturazioak, kobrantzak, ordainketak eta kontabilitate-lanak.

Alokabide programa: kontzeptua; prestazioak, edukia; programaren kostua; errentaren kalkulua; eskuratzeko baldintzak; kontratuen araubidea.

- 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Errentamenduei buruzkoa:

Legearen eremua; etxebizitza-errentamendua eta etxebizitza-erabilerarako ez dena: araubide aplikagarria, salbuetsitako errentamenduak.

Etxebizitza-errentamenduen arau orokorrak: arauen izaera; etxebizitza-errentamenduaren baldintza; kontratuaren lagapena eta azpierrementamendua; kontratuaren iraupena: gutxieneko epea, kontratuaren luzapena eta atzera egitea. Errentatzailearen eskubidearen suntsiarazpena; errentapeko etxebizitza besterentzea; errentariaren banantzea, dibortzioa edo ezkontzaren deuseztasuna. Errentaria hiltzea.

Errenta: zehaztea, eguneratzea, hobekuntzengatik igotzea. Gastu orokorrak eta zerbitzu indibidualen gastuak.

Etxebizitzaren kontserbazioa, hobekuntza-obra eta errentariaren obra. Desgaitasuna duten errentariak. Lehentasunez eskuratzeko eskubidea. Kontratua etetea, suntsiaraztea eta azkentzea; etxebizitzaren bizigarritasuna. Betebeharrak ez betetzea eta errentamendua azkentzea.

Etxebizitza-erabileraz besteko errentamenduak: finka balizatzea, eta errentariaren

kontserbazioa, hobekuntza eta obrak. Lehentasunez eskuratzeko eskubidea. Kontratua lagatzea eta azpierrentamendua. Errentaria hiltzea. Errentariarentzako kalte-ordaina. Zuzenbide osoko ebazpena.

Xedapen komunak: oiantza. Errentamendua formalizatzea.

Errentamendu-prozesuak: utzarazpen-prozesua; prekarioko utzarazpena; ez ordaintzeagatiko edo errentamendu-harremanaren epea amaitzeagatiko utzarazpena.

Xedapen gehigarriak eta iragankorrak.

- 49/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, jabetza horizontalari buruzkoa:

Xedapen orokorrak; pisu edo lokalen araberrako jabetzaren araubidea; eratze-titulua; jabeen eskubide eta betebeharrak; eraikuntzaren aldaketak; jabeen erkidegoaren araubidea: organoak, eskumenak eta erabakien araubidea.

- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena:

Xedapen orokorrak. Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa. Eskumenak, plangintza eta programazioa.

Eraikuntzan eta hiri- eta landa-multzoetan esku hartzea.

Fidantzak jartzea eta hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistroa.

Etxebizitzen erabilera egokiaren, bizigarritasun-baldintzen eta funtzio sozialaren berme juridikoak.

Ikuskapena, diziplina eta zehapen-araubidea.

- 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriari buruzkoa: babes publikoko etxebizitzetarako xedapen komunak. Babes ofizialeko etxebizitzaren oinarritzako araubide juridikoa. Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko araubidea. Babes ofizialeko etxebizitzen sustapena. Lurzoruaren arloko jarduketak. Finantza-neurriak.

- 210/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, kreditu-erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan, eta etxebizitzaren arloko neurri osagarriari buruzkoa.

- 149/2021 Dekretua, ekainaren 8koa, Jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriari buruzkoa: xedapen orokorrak. Jenderik gabeko etxebizitza deklaratzeko administrazio-prozedura. Jenderik gabeko etxebizitzen erregistroa. Jenderik gabeko etxebizitzen mobilizazioa bultzatzeko eta haien okupazioa sustatzeko sustapen-neurriak. Etxebizitza hutsak nahitaez alokatzea eta desjabetzea.

- 2006ko urriaren 4ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriari buruzkoa.

- Agindua, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzen gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokien kanona zehazteari buruzkoa.

- Agindua, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak erosketa-aukerarekin alokatzeari buruzkoa.

- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Birgaitze integratuko eremuen eta eremu degradatuen araubide juridikoa.

- 42/2016 Dekretua, martxoaren 15ekoa, fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzkoa.

- Agindua, 2021eko abenduaren 7koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua eta etxebizitzen eta bizitegi-eraikinen beste erabilera modu batzuk sustatzeko jarduketei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Jarduketa babestueak eta laguntzak. Etxebizitzak sustatzeko edo birgaitzeko neurriak, errentamendu babestuan lagatzeko.